



**EBAZPENA, 2021EKO MAIATZAREN 28KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ARGITARATZEN DIREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA ARITZEKO ALDI BATERAKO LANGILE-BEHARRAK ESTALTZEKO LAN-POLTSETAN AGERTZEN DIREN PERTSONEN BAREMAZIOEN BEHIN BETIKO ZERRENDAK, LAN-POLTSAK EGUNERATUTA BAITAUDE.**

---

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2021eko otsailaren 18ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak estaltzeko lan-poltsak eguneratu ziren.

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2021eko apirilaren 5eko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak estaltzeko lan-poltsetan agertzen ziren pertsonen baremazioen behin-behineko zerrendak onartu ziren; halaber, hamar egun balioduneko epea eman zen zerrenda horretako edozein daturi buruzko erreklamazioa aurkezteko Justizia Administrazioako Zuzendaritzari, behar bezala dokumentatuta.

Alegazioak aurkezteko epea amaitu ostean, alegazioak eta lan-poltsetak langileek aurkeztutako merezimendu eta dokumentazio berriak aztertu dira; beraz, bidezkoa da behin betiko ebazpen barematua ematea, Justizia Administrazioako zuzendariaren 2021eko otsailaren 18ko Ebazpenaren 10. oinarriak ezartzen duen bezala.

Horregatik guztiagatik,

**EBAZTEN DUT**

**Lehena.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak estaltzeko lan-poltsetan agertzen ziren pertsonen baremazioen behin betiko zerrendak onartzea (eranskinean jasotzen dira zerrenda horiek), eta [www.justizia.eus](http://www.justizia.eus) web-orrialdean eta Justiziako langileen Atarian argitaratu daitezen agintzea.

- I. eranskina.- Behin betiko zerrenda, alfabetikoki
- II. eranskina.- Behin betiko zerrenda, puntuen arabera
- III. eranskina.- Erreklamazioen zerrenda

**Bigarrena.**- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakiok Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik hiru hilabete igarotakoan ebazpenik ematen ez bada, errekurtsua ezetsita dagoela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 28a



  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Jon Arturo Uriarte Unzalu

**JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA**